

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

3214

EBAZPENA, 2016ko ekainaren 28koa, Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumoko zuzendaria-rena, zeinaren bidez diru-laguntzak ematen baitzaizkie toki-erakundeei eta horiek sustatutako entitateei kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak sustatu eta babes ditzaten 2016ko ekitaldian.

Osasun eta Kontsumoko sailburuaren 2010eko otsailaren 17ko Aginduaren bidez arautzen da kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak sustatu eta babes ditzaten toki-erakundeei eta horiek sustatutako entitateei ematen zaizkien laguntzen emakida.

Kontsumobideko zuzendariaren 2015eko abenduaren 10eko Ebazpenaren bidez iragarri zen kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak sustatu eta babes ditzaten toki-erakundeei eta horiek sustatutako entitateei ematen zaizkien laguntzetarako 2016ko deialdia.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen 20/2012 Dekretuak adierazten du Osasun Sailari dagokiola Kontsumo arloa.

2015eko abenduaren 10eko Ebazpenaren 3. artikuluan ezartzen den epean, 35 entitatek aurkeztu zuten 2010eko otsailaren 17ko Aginduan aurreikusten diren laguntzak jasotzeko eskabidea.

Aintzat hartu da, aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, Epaimahai Kalifikatzaileak egindako proposamena, zeina 2016ko maiatzaren 26an bildu baitzen.

Ondorioz, aipatutako xedapenei eta oro har eta bereziki aplikagarri diren gainerakoei atxikiz, honako hau.

XEDATZEN DUT:

1.– 859.170,32 euroko diru-laguntzak ematea Kontsumitzailearentzako Informazio Udal Bulegoen (KIUB) funtzionamendu-gastuetarako eta ekitaldiak antolatzeke, honela banatuta:

Abanto Zierbena Zerbitzuak, S.L.	14.342,55 €
Andoaingo Udala	16.768,83 €
Balmasedako Udala	10.353,53 €
Bilboko Udala	60.000,00 €
Donostiako Udala	40.930,95 €
Eibarko Udala	21.281,02 €
Erandioko Udala	31.374,33 €
Ermuko Udala	17.700,77 €
Etxebarriko Udala	16.344,53 €
Irungo Udala	44.820,48 €
Lasarte-Oriako Udala	15.035,43 €
Lekeitioko Udala	6.315,30 €
Laudioko Udala	23.530,75 €

Ortuellako Udala	14.342,55 €
Portugaleteko Udala	44.820,48 €
Santurtziko Udala	44.820,48 €
Vitoria-Gasteizko Udala	60.000,00 €
Zierbenako Udala	3.626,87 €
Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua	22.649,11 €
Añanako Kuadrilla	5.064,71 €
Kanpezuko-Arabako Mendialdea Kuadrilla	2.270,90 €
Guardia-Arabako Errioxako Kuadrilla	9.681,22 €
Elgoibarko Udala	7.650,30 €
Forlan	15.463,06 €
Goierriko Ekimena, S.A.	20.656,97 €
Hernani Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatua	30.434,42 €
Inguralde	60.000,00 €
Iraurgi Lantzen, S.A.	14.764,71 €
Urola Garaia Mankomunitatea	26.354,44 €
Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa	29.496,89 €
Enkarterriko Udalerrien Mankomunitatea	29.626,33 €
Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea	39.217,92 €
Oarsoaldea	44.820,48 €
Ondarroako Udala	4.400,28 €
Tolosaldea Garatzen, S.A.	10.209,73 €

2.– 1.050,00 euroko diru-laguntzak ematea Kontsumitzailearentzako Informazio Udal Bulego (KIUB) izango diren zentro eta zerbitzuen instalazio-, handitze- eta ekipamendu-gastuetarako edo kokapena aldatzeko, honela banatuta:

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea	1.050,00 €
---------------------------------------	------------

3.– 79.999,90 euroko diru-laguntza ematea, Kontsumitzailearentzako Informazio Udal Bulegoek (KIUB) ikuskapenak egiteko, honela banatuta:

Bilboko Udala	16.027,42 €
Erandioko Udala	9.449,43 €
Irungo Udala	10.351,50 €
Portugaleteko Udala	14.665,08 €
Santurtziko Udala	12.020,56 €
Vitoria-Gasteizko Udala	16.027,42 €
Forlan	1.458,49 €

4.– Ebazpen honen aurka, zeinak ez baitio amaiera ematen administrazio-bideari, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osasuneko sailburuari, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasi eta hilabeteko epean.

5.– Ebazpen hau Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko ekainaren 28a.

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren zuzendaria,
XABIER LEGARRETA GABILONDO.